KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021ko urtarrila

Aurkibidea

1. EAEko BPGaren hazkundea

2. Gizarte Segurantzako afiliazioa

3. Langabezia erregistratua

4. Inflazioa

5. Familien konfiantza

6. PMI konposatua

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %9,4 gutxituko da 2020an.

Susperraldia 2021eko bigarren hiruhilekotik aurrera iritsiko da.

2. ABEE baten eraginpean dauden afiliatuen kopurua igo da.

Azaroan ia 30.000 pertsona izatetik abenduan 43.000 baino gehiago izatera pasa dira.

3. Abenduan leundu egin zen EAEko langabeziaren igoera

Hala ere, urteko batez bestekoan, langabezia erregistratua 2019ko datuaren aldean %17,1 hazi da.

4. Prezioek behera egiten jarraitzen dute azaroan hamarren bat jaitsi ondoren.

Energiaren goranzko presioa elikagaien merkatzeak konpentsatu zuen.

5. Familien konfiantza inoizko apalena da.

Serie historiko osoan hauteman den okertze biziena da.

6. Txertoaren etorrerak Europako herrialdeen igurikimenak hobetu ditu.

Euroguneko PMI indize konposatua 49,1era igo da, baina oraindik atzeraldiko eremuan dago.

7. Hilabeteko laburpena.

2020 urtea, pandemiarena, amaitu da.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %9,4 gutxituko da 2020an

BPGA
Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2020

-%9,4



2020ko hirugarren hiruhilekoko BPGaren datuak eta azken hilabeteetan argitaratutako adierazle nagusiak xehetasunez ezagutu ondoren, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin ditu 2020-2021 aldirako EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak. Horren ondorioa da krisi ekonomikoa ez dela izango lehen uste baino gogorragoa (-%10,1), baina baita susperraldia motelagoa izango dela ere, pandemiaren kutsatzeen bigarren boladaren intentsitatearen ondorioz.

Izan ere, pandemiaren berragerpenak eta hura kontrolatzeko ezarri ziren murrizketek eragin handia izango dute turismoan, ostalaritzan eta kultura jardueretan; beraz, hirugarren hiruhilekoan hasitako susperraldia galgatu egingo da urteko azken hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, EAEko BPGa %9,4 jaitsiko da 2020an. Susperraldia 2021eko bigarren hiruhilekoan iritsiko da, hazkunde hutsaleko lehen hiruhilekoaren ostean, eta jarduera tasa %8,6 haziko da 2021ean.

AZKEN KONTSUMOA
Urte arteko aldakuntza tasa



KAPITAL ERAKETA GORDINA
Urte arteko aldakuntza tasa



INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA
Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA
Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA
Urte arteko aldakuntza tasa



Zehatzago esanda, barne eskariaren bi osagai nagusiek beherakada esanguratsuak izango dituzte 2020an, sektoreen azterketan gertatzen den bezala, non adar guztiak modu esanguratsuan gutxituko baitira. 2021erako, BPGaren agregatu guztiek, eskaintzaren zein eskariaren aldetik, jarduera ekonomikoaren aurrerapenari ekarpen positiboa egitea espero da.

Enpleguan izango duen eraginak handia izaten jarraituko du. Ekonomiak eskatzen duen lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 2020an %8,1 jaitsiko dela aurreikusten da. 2021ean, ordea, lanpostuen kopurua %7,0 haziko da. Azkenik, langabezia tasa %10,3 izango da 2020an, eta %9,8, berriz, 2021ean.

ENPLEGUA
Urte arteko aldakuntza atsa



LANGABEZIA TASA
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

ABEE baten eraginpean dauden afiliatuen kopurua igo da

Gizarte Segurantzako afiliazioaren abenduko datuek nolabaiteko zehaztasunarekin azaldu behar den irudia uzten dute. Izan ere, urte arteko aldakuntza tasak, estatistika horren bilakaera aztertzeko oso erabiliak baitira, hilabete horretan –% 2,2ko aldakuntza izan zuen, aurreko hilekoa baino hamarren bat txikiagoa soilik, nahiz eta kutsatzeen bigarren olatuak eragotzi egin zuen jardueraren garapen normala zerbitzuen adar garrantzitsu batzuetan.

Hala ere, kontuan izan behar da afiliatuen kopuru esanguratsu bat aldi baterako enplegu erregulazioko (ABEE) egoeran dagoela. Zehazki, pertsona horiek ia 30.000 ziren azaroan eta 43.000 baino gehiago abenduan. Aipatutako aldakuntza tasa hori ABEE batean dauden pertsona horiekin zuzentzen bada, bilakaera –%5,2tik –%6,6ra pasatzen da; zifra horiek hobeto adierazten dituzte pandemiaren bigarren olatua ekonomian uzten ari den ondorio kaltegarriak.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA
Urte arteko aldakuntza tasa

ABENDUKO AFILIAZIOA

-%2,2



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA GUZTIRA (ABEERIK GABE)
Urte arteko aldakuntza tasa

ABENDUKO AFILIAZIOA

-%6,6



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA. EMAKUMEAK (ABEERIK GABE).

Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA. GIZONAK (ABEERIK GABE).

Urte arteko aldakuntza tasa



Bi generoek antzeko bilakaera izan dute, baina enplegu erregulazioko espedienteek emakume gehiagori eragiten diete gizonei baino. Aldakuntza tasari dagokionez, emakumeek %1,9 egin dute behera afiliazioetan, baina %6,5eraino iristen da, ABEEak kontuan hartuz gero. Gizonen kopuruak, berriz, %2,5 eta %6,3 dira.

Jarduera adarren araberako analisiak adierazten du kaltetuenak ostalaritza eta manufakturak direla, nahiz eta ABEEek laguntza ematen duten, aurreko urtearekin alderatuta ia 7.100 eta 6.600 afiliazio galdu baitituzte, hurrenez hurren, bi jarduera horiek. Aitzitik, osasun jarduerek soilik egiten dute nabarmen gora afiliazioetan.

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

	2019ko abendua	2020ko abendua	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	980.592	959.132	-21.460
Industria manufakturagileak	175.063	168.494	-6.569
Merkataritza	138.906	136.136	-2.770
Osasun arloko jarduerak	107.646	110.636	2.990
Hezkuntza	75.999	75.349	-650
Administrazio jarduerak	66.735	66.784	51
Ostalaritza	68.088	61.007	-7.081
Eraikuntza	57.301	57.009	-292
Lanbide jarduerak	57.092	56.624	-468
Administrazio publikoa	49.243	48.530	-713
Garraioa	43.145	42.621	-524
Etxeko langileak	29.709	28.876	-833
Bestelako zerbitzuak	28.709	26.131	-2.578
Informazioa eta komunikazioa	23.275	23.571	296
Finantza jarduerak	17.795	17.352	-443
Jarduera artistikoak	17.517	15.626	-1.891
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	11.783	11.721	-62
Ur horniketa	6.306	6.346	40
Higiezinen jarduerak	4.157	4.132	-25
Energia horniketa	1.502	1.577	75
Erauzketa industriak	566	552	-14
Lurraldez kanpoko erakundeak	57	57	0

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Abenduan leundu egin zen EAEko langabeziaren igoera

Abenduan, erregistratutako langabeziaren bilakaera positiboa izan zen; izan ere, Lanbideko bulegoek argitaratutako azken datuen arabera, langabeen kopuruak gora egiten jarraitu zuen, baina aurreko hilekoetan baino gutxiago. Beraz, igoerak hiru hilabeteko beheranzko joera erakutsi du. Zehazkiago adierazita, 2020. urtea 2019ko hilabete berean baino 15.078 langabe gehiagorekin itxi zuen EAEk, %13,2ko igoera batekin. Hala ere, hilabete horrek urte osoko bilakaera neurri batean arindu bazuen ere, urteko balantzea ez zen ona izan. Zehazki, urteko batez besteko langabezia % 17,1 igo zen, eta zifra horiek ez ziren 2009tik ikusten, finantza krisi handitik, alegia. Hala eta guztiz ere, EAEko lan merkatuak nolabaiteko erresistentzia gaitasuna erakutsi du, 2020an BPGak izan zuen beherakada inoiz izan den handiena izan dela kontuan hartuta.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ABENDUA

%13,2



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK



LANGABEZIA . GAZTEAK
Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK
Urte arteko aldakuntza tasa



Erresistentzia horren erakusgarri, adierazi behar da abenduan 17.210 langabe gutxiago zeudela abuztuan izandako maximoan (146.450) baino, pandemia lehertu eta hileko batzuetara jaso baitzen kopuru hori. Birusaren agerpenak erabateko konfinamendua ekarri zuen martxoan, eta hainbat murrizketa, langabeziaren zifra maximo horretaraino igo zutenak. Ondorengo hobekuntzan ez zuten berdin parte hartu gizonek eta emakumeek. Hala bada, gizon langabetuen kopurua %15,1 hazi zen eta emakume langabetuena, berriz, %11,7, funtsezkotzat jotzen diren jardueretako asko, hala nola osasuna edo konfinamenduan zehar irekita geratu zen merkataritzaren zatia, oso feminizatuta daudelako. Sektoreka aztertuta, langabeziak zerbitzuetan izan zuen gorakadarik handiena, ostalaritzak izan zituen mugengatik.

LANGABEAK

	2019ko abendua	2020ko abendua	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	114.162	129.240	15.078
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.722	21.727	3.005
Bizkaia	65.117	73.080	7.963
Gipuzkoa	30.323	34.433	4.110
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	51.168	58.898	7.730
Emakumeak	62.994	70.342	7.348
25 urtetik beherakoak	7.879	10.708	2.829
25 urte baino gehiago dutenak	106.283	118.532	12.249
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.509	2.714	205
Industria	14.326	16.002	1.676
Eraikuntza	8.295	8.642	347
Zerbitzuak	75.457	86.341	10.884
Lehenago lan egin dutenak	100.587	113.699	13.112
Lehenago lan egin ez dutenak	13.575	15.541	1.966
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	18.435	20.435	2.000

Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

Prezioek behera egiten jarraitzen dute, azaroan hamarren bat jaitsi ondoren

KPI INDIZE OROKORRA
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) argitaratutako azken datuen arabera, azaroko KPI indizea –%0,6 izan zen, eta zortzi hilabete jarraian kokatu da balio negatiboetan. Bilakaera horretan eragina izan zuten, alde batetik, elektrizitatearen prezioek aurreko aldietako beherakada arintzeak, eta, bestetik, elikagaien prezioek beherakada izateak.

KPIAREN BANAKETA
Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko azaroa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,6	-0,6
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,2	0,2
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,0	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,1	0,1
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-4,2	-0,8
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	2,9	0,2
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-9,1	-1,0

AZPIKO INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA
Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Horiek horrela, KPIaren bilakaeran goranzko eragin handiena izan zuen taldea etxebizitza izan zen, –%1,9ko aldakuntza jaso baitzuen, hots, aurreko hilekoa baino ia puntu eta erdi handiagoa, elektrizitatearen prezioen igoeragatik eta, neurri txikiagoan, berokuntzarako gasolioaren prezioen igoeragatik. Azken horiei petrolioaren prezioaren bilakaerak eragin zien, eta igoera nabarmena izan zuen azken egunetan. Martxoaren hasieratik prezio maximoak eskuratu zituen. Jakina, petrolioa ari da aktiborik onuragarrienetako bat izaten txertoaren hedapenarekin, horrek mugikortasunaren hazkundean ekar dezakeen guztiagatik, eta, horrela, lehengai horren eskaria handitzen ari da. Aitzitik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea eragin negatiboagatik nabarmendu zen, urriko datuekin alderatuta sei hamarren murriztu eta %1,9an kokatu ondoren, fruta freskoen eta beste osagai batzuen (arraina eta itsaskia, adibidez) eta lekaleen eta barazkien prezioaren beherakadaren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko azaroa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	**-0,5**	**-0,8**	**-0,3**
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,5	2,3	1,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,1	0,5	3,3
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	-0,5
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-3,2	-3,6	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,3	0,1
Osasuna	0,4	0,3	0,3
Garraioa	-5,0	-5,1	-3,5
Komunikazioak	-4,1	-4,2	-3,0
Aisia eta kultura	-1,3	-0,7	0,0
Hezkuntza	0,2	-0,2	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	1,5	0,3	0,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,0	1,4	1,4

Iturria: INE , Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

Familien konfiantza inoizko apalena da

EAEko familien konfiantza indizea

2020ko IV hiruhilekoa

-33



2020ko laugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza indizeak azken sei urteetako baliorik txikiena jaso zuen, eta 2008ko krisiaren ezkortasun maileta kokatu zen.

Covid-19ak sortutako krisiak kontsumitzaileen konfiantza hondatzea eragiten du, eta ekonomiaren susperraldiari buruz eszeptiko agertzen dira. Lehen hiruhilekoaren (-1) eta laugarrenaren (-33) arteko konfiantzaren beherakada estatistika horrek inoiz erregistratu duen jaitsiera handiena da. Ezkortasuna areagotu egin da pandemiaren bigarren olatuarekin, ezarritako euste neurriekin eta hirugarren infekzio olatu baten iragarpenarekin.

Nazioarteko testuinguruan, igurikimen negatiboak orokorrak dira, baina EAEn, Estatuan eta Erresuma Batuan kuantifikatu da gehien mesfidantza hori.

Familien konfiantza indizea

	2019	2020	2019		2020			
			III	IV	I	II	III	IV
Euskadi	**-2**	**-22**	**-5**	**-9**	**-1**	**-24**	**-30**	**-33**
Europar Batasuna	**-6**	**-15**	**-7**	**-7**	**-7**	**-21**	**-16**	**-18**
Frantzia	-9	-13	-8	-6	-8	-18	-12	-16
Alemania	-2	-10	-3	-3	-3	-16	-9	-11
Erresuma Batua	-10	-17	-9	-10	-6	-23	-17	-22
Espainia	-6	-23	-6	-10	-10	-29	-27	-28

Ekonomia orokorra



Iritzien inkesta horren arabera, indize orokorra osatzen duten osagai guztiek okerrera egin zuten 2020ko laugarren hiruhilekoan. Eskuragarri dauden koiunturazko datuek krisi ekonomikoa moteltzen ari dela erakusten badute ere, ekonomia orokorraren eta enpleguaren gaineko egoeraren balorazioak nabarmen egin du behera urteko azken hilabeteetan. Orobat, etxeko egoeraren balorazioak ere okerrera egin du, nahiz eta iritzia gutxiago ezkortu den.

Familiaren ekonomia



Aurrezteko gaitasuna balio negatiboetara itzuli da berriro. Konfiantzaren eragina etxeko gastuan eta inbertsioan begi bistakoa da: 2020an EAEko etxeetako kontsumo eta inbertsio erabakiak geldiarazi dira. Atonia bat dago etxebizitza edo autoa erosteko asmoan, eta hori areagotu egin da 2020ko laugarren hiruhilekoan. Zuhurtzia izan da ezaugarri nagusia eta aurrezpena historikoki maila altuetan egotea ekarri du.

Langabeziaren bilakaera



Aurrezteko gaitasuna



Iturria: Laboral kutxa.

ENPRESEN KONFIANTZA

Txertoaren etorrerak Europako herrialdeen igurikimenak hobetu ditu

Euroaren eremuko PMI konposatuak hobekuntza nabarmena izan zuen abenduan, aurreko hileko 45,3tik urtea amaitu zeneko 49,1era igaro baitzen. Balio hori 50. mailatik beherakoa da, eta, beraz, ekonomia oraindik uzkurtze eremuan dagoela adierazten du, baina Europako enpresen aurreikuspenetan zerbait aldatzen ari dela iradokitzen du.

Markit-en galdetegiari emandako erantzunek argi uzten dute manufakturek (55,2) aise gainditu dituztela joan den udaberriko zailtasunak, eta 2018ko erdialdetik izandako daturik altuena erregistratu dutela. Aitzitik, zerbitzuek (46,4) irudi kezkagarria ematen dute oraindik, azaroko datuekin alderatuta ia bost puntu hobetu diren arren.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA

2020KO ABENDUA:

49,1



MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI konposatua. Alemania



PMI konposatua. Frantzia



Murrizketak eta gizarte urruntzeko neurriak dira eskaera berriak behar beste ez handitzeko azaldu dituzten arrazoiak. Aitzitik, txertoen etorrerak baikortasuna hobetu du hamabi hilabete barru aurreikusitako jarduerarekiko. Baikortasun hori 2018ko apiriletik izandako handiena da.

Herrialdeka aztertuta, nabarmentzekoa da Frantzian eta Espainian hauteman den suspertzeko joera bizia, hurrenez hurren, 49,5ean eta 48,7an kokatu direlako. Bi herrialde horietan, zerbitzuak ez dira oraindik suspertu, baina hilabete bakar batean hamar puntutan (Frantzia) eta bederatzi puntutan (Espainia) hobetu dute egoera. Italian, ordea, ez da hobekuntza nabarmenik izan.

PMI konposatua. Espainia



PMI konposatua. Italia



PMI konposatua. Erresuma batua



Iturria: Markit.

HILABETEKO LABURPENA

2020 urtea, pandemiarena, amaitu da

Abenduan bi joera kontrajarri hauteman dira panorama ekonomikoan, biak ere mundu osoan bizi den pandemia egoerari lotuak. Alde batetik, **hirugarren kutsatze olatu baten hedapena egiaztatu da**, batez ere Europako herrialde batzuetan, non azken hilabeteetako kasu eta heriotza gehien erregistratu baitituzte orain. Beste aldetik, lehen txertoen etorrera fisikoak eta **biztanleriaren txertaketa masiboaren hasierak pentsarazten dute hilabete gutxi barru pandemia kontrolpean egon daitekeela**. Hori enpresen igurikimenetan nabaritu da.

Horren adibide da Europako herrialdeetako PMI indizeek izan duten bilakaera. Oro har, indize horiek okerrera egin zuten nabarmen azaroan, pandemiaren kontrolean lortutako emaitza txarrengatik, eta horrek mugikortasunari eta eskariari eragin zieten murrizketa berriak ekarri zituen. Hala eta guztiz ere, baikortasuna abenduko datuetan hasi da agertzen, batez ere hamabi hilabeterako ikuspegiari buruzko galderaren erantzunetan. Horri esker, **Euroguneko indize konposatua 49,1era arte igo da, manufakturen balioa oso handia dela (55,2) eta zerbitzuen ahultasuna oraindik handia dela (46,4),** aurreko datuaren aldean nabarmen hobetu den arren. Eremu horretako herrialde nagusien artean, Alemaniako indarra azpimarratzekoa da berriz ere (52,0), manufaktura sektore indartsuari eta esportazioen bilakaera onari esker. Baina hilabete honetan nabarmendu behar da Frantzian (49,5) eta Espainian (48,7) gertatu den zeinu aldaketa, azaroko datuekin alderatuta hamar puntu eta bederatzi puntu hobetu baitira, hurrenez hurren, eta azken hilabeteetako daturik onenak lortu baitituzte.

EAEko ekonomiari dagokionez, aipatu behar da **enplegu erregulazioko espedienteak (ABEE) lan garrantzitsua egiten ari direla langabeziak gora egin ez dezan.** Alde batetik, abenduan erregistratutako langabeziaren bilakaera positiboa izan zen; izan ere, aurreko hilabeteetako igoera erritmo bortitza arindu egin zen, eta hileko aldakuntza tasa (%13,2) apiriletik izandako baxuena izan zen, moteltzeko joera argi batean. Beste aldetik, Gizarte Segurantzako afiliazioak norabide nahiko laua erakusten du bere bilakaeran; izan ere, hilabete bateko urte arteko afiliazioaren eta aurreko hilekoaren arteko aldea hamarren batekoa baino ez da. Baina irudi hori ABEEen erabilerak baldintzatzen du. Izan ere, azaroan 30.000 pertsona baino gutxiago bazeuden ABEE baten eraginpean, abenduan 43.000 baino gehiago izan ziren. Horrek esan nahi du lan merkatuak okerrera egin zuela, ezarritako murrizketen ondorioz zerbitzu alorreko enpresa batzuek jarduteko aukerarik ez zutelako izan.

Bien bitartean, **EAEko industriak, Europakoak bezala, zerbitzuenak baino susperraldi sendoagoa erakusten du**. Azaroko industria ekoizpenak, ezagutu den azken hilabetea hori baita, %7,4ko urte arteko jaitsiera adierazten du, martxotik izan duen apalena. Kontsumo ondasunen ekoizpenak, batez ere kontsumo iraunkorrekoak, erakusten du profil onena, nahiz eta gainerako produktu multzoek ere nabarmen murriztu dituzten udaberriko eta udako hilabeteetako beherakada erritmoak. Industria giroari buruzko estatistikak adierazten du, halaber, sektoreak 2020ko laugarren hiruhilekoan zituen itxaropenak urteko baikorrenak izan zirela, eta 2018ko eta 2019ko batez besteko balioetatik oso gertu zeudela, nahiz eta abenduko datuak, aurreko biak baino okerragoak, zalantzaren bat sortzen duen susperraldiaren jarraitutasunari buruz.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG	**3,1**	**2,2**	**2,1**	**2,2**	**-3,2**	**-19,5**	**-7,5**
Barneko azken kontsumoa	2,6	1,9	1,8	1,6	-3,0	-15,4	-5,9
Familien kontsumoa	3,0	1,8	1,6	1,5	-4,8	-20,3	-8,5
Administrazioaren kontsumoa	1,2	2,2	2,4	2,3	4,1	3,0	3,6
Kapital eraketa gordina	4,9	3,3	2,7	2,7	-3,6	-23,0	-11,4
Barne eskaria	3,2	2,2	2,0	1,9	-3,1	-17,2	-7,2
Esportazioak	2,7	0,4	-0,6	1,4	-7,5	-30,1	-15,5
Inportazioak	2,8	0,4	-0,6	1,0	-7,2	-26,4	-14,8
Lehen arloa	1,7	3,2	2,8	5,9	3,5	-6,1	-7,2
Industria eta energia	2,0	1,3	1,2	2,2	-3,6	-26,7	-9,5
Eraikuntza	4,0	3,4	3,2	2,1	-2,7	-17,9	-9,3
Zerbitzuak	3,1	2,5	2,4	2,1	-2,8	-17,5	-6,5
Balio erantsi gordina	2,9	2,3	2,1	2,2	-3,0	-19,6	-7,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,2	1,8	2,3	-5,1	-18,4	-8,5
Enplegua	2,3	1,5	1,5	1,2	-2,8	-17,2	-6,2

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2020	2021				2021
	IV		I	II	III	IV	
BPG	**-7,3**	**-9,4**	**0,0**	**21,3**	**7,7**	**7,4**	**8,6**
Barneko azken kontsumoa	-5,9	-7,5	0,4	17,4	6,0	6,2	7,2
Familien kontsumoa	-8,3	-10,5	0,0	22,3	7,2	7,2	8,7
Administrazioaren kontsumoa	3,2	3,5	1,5	2,2	1,4	1,7	1,7
Kapital eraketa gordina	-8,8	-11,7	-1,3	24,8	8,7	8,5	9,4
Barne eskariaren ekarpena	-6,8	-8,9	0,0	20,3	6,7	6,9	7,9
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,5	-0,5	0,0	1,0	1,0	0,5	0,8
Lehen arloa	-9,6	-5,0	11,6	13,6	8,6	11,2	11,3
Industria	-9,1	-12,2	-0,1	28,3	7,8	7,0	9,7
Eraikuntza	-8,9	-9,7	-0,3	18,5	7,7	7,3	7,9
Zerbitzuak	-6,4	-8,3	-0,1	19,5	7,6	7,5	8,2
Balio erantsi gordina	-7,2	-9,3	0,0	21,3	7,7	7,4	8,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-8,2	-10,1	-0,3	20,0	7,8	7,4	8,4
Lanaldi osoko lanpostuak	-6,3	-8,1	-1,3	17,4	6,1	6,2	7,0
Landunak (BJA)	-3,3	-2,7	-1,8	2,9	2,9	2,8	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
Hispalink (BEGren aldak.)	-10,6	5,7	Funcas	-9,7	6,1
BBVA	-10,5	5,8	Confebask	-9,2	7,2
CEPREDE	-10,2	8,8	Afi	-7,5	—
Laboral Kutxa	-10,2	7,0			

ESTATISTIKA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
BPG	2,4	2,0	1,8	1,7	-4,2	-21,6	-9,0
Kontsumo pribatua	1,8	0,9	1,1	1,0	-6,1	-25,4	-10,5
Kontsumo publikoa	2,6	2,3	2,2	2,6	3,8	3,2	3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,1	2,7	2,8	0,9	-5,2	-24,5	-9,1
- Aktibo finko materialak	7,6	2,7	2,6	0,1	-7,1	-28,2	-10,2
- Eraikuntzan	9,3	1,6	0,9	-2,2	-6,9	-25,9	-13,1
- Ekipamendu ondasunetan	5,4	4,4	5,4	3,6	-7,8	-33,3	-6,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	-0,7	2,6	3,7	5,0	4,6	-5,2	-3,3
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	1,4	1,5	1,0	-3,9	-18,7	-7,2
Esportazioak	2,3	2,3	2,7	2,1	-5,6	-37,8	-19,3
Inportazioak	4,2	0,7	2,0	0,3	-5,3	-32,5	-15,4

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-11,7	6,4	IEE	-12,0	6,0
Axesor	-11,8	6,6	Intermoney	-11,5	5,6
BBVA	-11,5	6,0	Mapfre Economics	-11,8	6,7
Bankia	-13,0	6,0	Repsol	-11,0	6,8
CaixaBank	-11,4	6,0	Santander	-11,3	7,0
Cámara de Comercio España	-13,0	8,6	Ygroup Companies	-12,0	5,0
Cemex	-12,0	5,5	Universidad Loyola Andalucía	-11,3	5,0
CEEM-URJC	-11,6	8,3	Consenso (media)	-11,8	6,5
CEPREDE-UAM	-10,8	8,7	Gobierno (2020-10)	-11,2	7,2/9,8
CEOE	-11,5	7,0	Banco España (2020-09)	-10,5/-12,6	7,3/4,1
Equipo Económico (Ee)	-12,0	6,8	Comisión Europea (2020-11)	-12,4	5,4
FUNCAS	-12,0	6,7	FMI (2020-10)	-12,8	7,2
ICAE-UCM	-12,0	6,0	Consensus Forecast (2020-12)	-11,7	6,1

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizacines Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019		2020		
			III	IV	I	II	III
AEB	3,0	2,2	2,1	2,3	0,3	-9,0	-2,8
Txina	6,7	6,1	6,0	6,0	-6,8	3,2	4,9
Japonia	0,3	0,7	1,3	-1,0	-2,1	-10,3	-5,7
Kanada	2,4	1,9	1,9	1,7	-0,3	-12,5	-5,2
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,6	1,3	-2,6	-13,9	-4,2
Eurogunea	1,9	1,3	1,4	1,0	-3,2	-14,7	-4,3
Alemania	1,3	0,6	0,8	0,4	-2,1	-11,2	-4,0
Frantzia	1,8	1,5	1,6	0,8	-5,7	-18,9	-3,9
Erresuma Batua	1,3	1,3	1,4	1,2	-2,4	-20,8	-8,6
Italia	0,9	0,3	0,5	0,1	-5,6	-18,0	-5,0
Herbehereak	2,4	1,7	1,6	1,7	-0,4	-9,2	-2,5

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020KO ABENDUA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-3,6	4,0	1,2	2,0	8,2	6,2
Japonia	-5,3	2,6	0,0	0,0	2,8	3,1
Kanada	-5,7	4,7	0,7	1,7	9,5	7,8
Europar Batasuna	-7,1	4,5	0,5	1,1	—	—
Eurogunea	-7,3	4,7	0,3	0,9	8,1	9,2
Alemania	-5,4	3,9	0,5	1,4	5,9	6,1
Frantzia	-9,3	5,9	0,5	0,8	8,4	10,0
Erresuma Batua	-11,1	5,3	0,9	1,6	4,7	6,9
Italia	-9,0	4,9	-0,2	0,4	9,5	11,1
Espainia	-11,7	6,1	-0,3	0,6	—	—
Herbehereak	-4,4	2,8	1,2	1,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.